



ALEA
arabako aldizkaria

2015-10-09 OSTIRALA
33. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS



SAGAR UZTA OPAROA

Aramaion, lehenengo zukuak prest

Salburuko tranbia, geldi

Autobus azkarrak ezarriko dituzte

Trebiñu, 'historiaurreko paradisia'

Aurkikuntza garrantzitsuak Martinarrin

JARDUNALDIAK

**Ibilaldi
Berdeak**

40 urte,
40 urteko
elkartasuna
Sahararekin



Gasteiz

Urriak 16
16:00etatik
aurrera
Ignacio Aldecoa
kultur etxean



16,00 - Irekiera / Apertura.

'El Sahara Occidental a los 40 años de la Marcha Verde'

Mohamed Sidati (Fronte Polisarioaren Europako ordezkaria /
Representante del Frente Polisario para Europa)

Moderadoratzailea:

Diana Urrea, eusko legebiltzarkidea / parlamentaria vasca

17,00 - Mahaingurua / Mesa redonda:

'Los derechos humanos en el Sahara Occidental'

Carlos Beristain eta Hassana Aalia.

Moderadoratzailea: Kristina Berasain

18,00 - Atsedena.

18,15 - Mahaingurua / Mesa redonda:

*'4 décadas de solidaridad con el Sahara,
¿de dónde venimos y hacia dónde vamos?'*

Núria Salarné (Associacions Catalanes Amigues del Poble
Sahraui - Federació), Jesus Garai (SEAD) y Nekane Perez

(nafar parlamentario ohia / ex-parlamentaria navarra).

Moderador: Eneko Gerrikabeitia (Mundubat)

19,45 - Ondorioak / Conclusiones.

20,00 - Itxiera / Clausura

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





Alea

33. zk.

Azaleko argazkia:
Mirian Biteri



4



8



18



23

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu,
harpidetu zaitez. 50 euroren truke,
44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Hala Bedi Bi irratan 'Araba Hizpide', lehenengo magazina.
- 8 N. Albeniz: "Benetako kultura nahi dugu, ez itxurazkoa".
- 10 Urtebete ospatuko du Oihaneder Euskararen Etxeak.
- 12 Iritzia: Haizea Galarraga, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: autobus azkarrak tranbiaren ordeez, Salburun.
- 16 Aiaraldea: Siriara mantak bidaltzeko elkartu dira.
- 17 Lautada: Diputazioari kontu eske, Barrundiatik.
- 18 Gorbeialdea: hogeita hamar baserritan sagardoa.
- 20 Añana: Europa Nostra saria herritarrekin ospatu dute.
- 21 Mendialdea: Kanpezu eta Lagranen, euskara taldeak.
- 22 Trebiñu: Martinarriko babeslekua, sorpresaz beterik.
- 23 Arabako Errioxa: Ardoaren Ibilbidean eskaintza berriak.

HAMAICA SALTSA

- 24 Musika elektronikoa Mugako jaialdiarekin.
- 25 Europako eta Euskal Herriko dantzak, ilunabarrean.
- 26 Teknologia: plataforma digitalen aukerak, aztergai.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasa.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA

Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Haizea Galarraga, Iker Etxaniz eta Ander Bustamante (Oreka IT).

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Goizeko lehiara, jauzia

Ikasturte berria apustu handi batekin hasi du Hala Bedi Bi irratiak; kolaboratzaile sare zabala lagun, goizero, lurraldeko aktualitatea eramango dute uhinetara 'Hizpidea' eta 'Arabako Hizpidea' saioekin. **ANAKOZ AMENABAR** @anamenabar GASTEIZ

Euskaraz, astelehenetik ostiralerara, egunero bi orduz, Arabako eta Euskal Herriko aktualitatea ardatz. Osagai horiekin apustu handia egin du Hala Bedi Bi irratiak, irratizale gehienak adi dauden tarterako, goizerako, erritmo biziko magazina prestatuta. Asteartean ekin zioten *Hizpidea* informazio saioarekin, 09:00etatik 10:00etara, Bilbo Hiria irratiarekin elkarlanean, eta *Araba Hizpide* saioarekin ondoren, 10:00etatik 11:00etara. "Apustu sendoa egin dugu aurten; duela bi urte hasi zen Hala Bedi Bi irrati hainbat irratsaioarekin, eta bost bat irratsaio egitea lortu dugu, baina beste bultzada bat behar zuen", nabarmendu du Iñaki Ziarsolo Hala Bedi-ko kideak.

Aktualitateari lotutako *Hizpidea*-rekin abiatzen dira egunero Mieltxo Monfort eta Jon Sanchez aurkezleak, 09:00etan, Gasteiz eta Bilboko estudioak batzen dituen irratsaioan. "Saio bizi-bizia egin nahi dugu, aktualitateari errebaso txiki bat eman eta horretan zerbait gehiago sakontzeko hainbat kolaboratzailearen iritziekin", azaldu du Gasteizko estudioan aurkezle dabilen Sanchezek. Arina bai, baina gaiak sakon jorratzeari utzi gabe, adierazi duenez: "Bilbo Hiria eta Hala Bediren estiloa ez da azalean

"Hala Bediren estiloa ez da azalean geratzearena; mamira joko dugu Arabako Hizpidea saioan ere"

JON SANCHEZ HALA BEDIKO KIDEA

"Erronka handia da Bilbo Hiria irratiarekin batera programa bat egitea, horrek dituen zailtasunekin"

IÑAKO ZIARSOLO HALA BEDIKO KIDEA

geratzearena, mamira jotzearena baizik, eta iritzia ematea, entzuleak harena osatu dezakeelako besteen bitartez". Horrek egiten du "berezi" saioa, Sanchezen arabera, ohiko irratietatik desberdin: "Azalean gera gintezkeen eta egin genezakeen gertaeren saioa, betelaneakoa, baina guk mamira jo nahi dugu eta adi-tuen iritzia eskatuko dugu".

Elkarrizketa bat izango dute egunero, eta hainbat kolaborazio, arlokakoak, baina egunerokoari lotutakoak; izan daitezke nazioartea, ekonomia, kontsumoa edota desazkundera buruzkoak, beste askoren

artean. Arabakoari dagokionez, bestetik, eguneko albisteak gainbegiratu ostean, hainbat iritzi zutabe izango dituzte eta, egunero, erreportaje edo elkarrizketa bat ere izango dute.

Bi ordu izango dira, trinkoak, albisteari eta iruzkinari leku eginez. "Eta horretarako, 60 kolaboratzaileko sarea daukagu; azkar esaten da hori baina kopuru oso handia da halako saio batentzat", azaldu du Sanchezek. Besteak beste, Iñaki Martínez de Luna, Irantzu Lekue, Mikel Ayllon, Txotxe Andueza, Idurre Eskisabel, Gorka Bereziartua, Maite Asensio eta Eneko Barberena arituko dira, *Hizpidea* eta *Araba Hizpide* saioetan. Era honetan, Hala Bedi eta Bilbo Hiria irratietako kideekin batera, ALEA, Berria, Aiaraldea, Argia, Aizu, Euskalerrria Irratia, Hamaika telebista eta beste hainbat hedabideetako lagunak ere izango dira kolaboratzaile.

Arabari dagokion tarteak duen garrantzia nabarmendu nahi izan du Ziarsolok: "Egunero ordubeteko saio bat izatea bertako informazioarekin, hori da gure bereizgarria; Euskadi Irratiak ere ez du halakorik egiteko aukerarik". Kuadrilletako kolaboratzaileak izango dituzte eta udaletxeen berri izateko ere hainbat politikarirekin eztabaida saioak antolatuko dituzte. Beste



Jon Sanchez eta Iñaki Ziarsolo, Hala Bedi irratiako estudioetan.

ARITZ MARTÍNEZ DE LUNA

hedabide batzuk iristen ez diren lekuetara heltzeko asmoa dutela azaldu du Ziarsolok. "Orain, gure erronka ahalik eta lan duinena egitea da, askotariko jendea biltzea eta ikuspuntu anitz horiek erakartzea irratsaiaora".

Lizentziak "pizgarri"

Apustu handia egin du Hala Bedi Bi irratiak goizeko magazinarekin, abian jarri zutenetik nagusiena. Hona iritsi arteko bidea, baina, gorabeheratsua izan du. 2012an aurkeztu zuten irrati lizentzia banaketan horietako bat lortzeko saiakera egin zuen Hala Bedik, eta lortu zuen arren bertan behera geratu zen. Hamar lizentzia banatu behar zituzten Gasteizen, eta hiru euskarazko hutsezko irratiarentzat soilik. Inor aurkezten ez bazen euskarazko lizentzia horiek gaztelaniako hedabide batek hartuko zituen. "Eran-tzukizun baten moduan ikusi genuen; lizentzia hartzea erabaki genuen, gero hori aurrera nola eramanez ongi

88.8 FM

HALA BEBI BI

Frekuentzia horretan sintonizatu daiteke, Gasteizen; halabedi.eus webgunean ere entzun daiteke Hala Bedi Bi.

jakin gabe", aipatu du Ziarsolok. Hala Bedi Bik lizentzia lortu zuen arren, Patxi Lopezen azkeneko gobernu bileran prozesu guztia bertan behera geratzea erabaki zuten.

Lizentzia ez da oztopoa izan, ordea. Are gehiago, Hala Bedi Bi sortzeko "pizgarri" nagusia izan dela gogoratu dute bertako kideek. Lizentziarik izan gabe ere, proiektuarekin aurrera jarraitu behar zutela erabaki zuten: "Uste genuelako Gasteizen bazegoela behar bat euskara hutsezko irrati lokal batena; Hala Bedi

Batek esparru soziologiko bat betetzen duen moduan, ikusten genuen Hala Bedi Bik ere bazuela lekua, euskaldunena, gertutasun hori eskainiko lukeen irratiarena".

Duela bi urte jarri zuten martxan, eta hasiera batean lan militantearekin esker osatutako irratsaioak sortu bazituzten ere, pauso bat gehiago eman eta "sendotasuna eta trinkotasuna" emango dion goizeko magazina sortzeko apustua egin dute. Eta, dagoeneko, uhinetan da apustua.

"Elkarlan aberasgarria"

Lehenengo saioak egin dituzte, eta horrekin batera, noski, lehenengo zailtasunak heldu dira. "Erronka handia da, besteak beste, Bilbo Hiria irratiarekin batera programa bat egitea, horrek dituen zailtasun teknikoekin, baina uste dugu etorkizunera begira bide luzeko erronka dela". Lehenengo aldia da bi irrati horren modu hertsian lan egiten dutela, Ziarsolok gogoratu moduan: "Elkarlanean, bi estudio bat eginik,



Alai Bedi haurren irratsaioko kideak.

RAUL BOGAJO

zerotik hasitako proiektu batekin; zailtasunak izango dira, baina oso aberasgarria izango dela uste dugu".

Lan horren emaitza bertatik bertara ikusteko, gainera, jende aurrera eraman nahi dituzte goizeko saioak. Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean izango dira, azaroan; kolaboratzaileen laguntzarekin irratsaioaren nondik norakoak azaldu dituzte eta musika kontzertuak eta zizka-mizkak ere ez dira faltako aurkezpenean.

Alai Bedi

Irratsaio berrieekin batera, bestetik, ibilbidea egin eta egonkortu diren hainbat saio entzuteko aukera ere

Halabelarri izateko deia

Bazkideak: Hala Bediren finantziazio apustua bazkideztarena da, alegia, irratiazen jarduna gogoko duenak eta aurrera jarrai dezan nahi duenak diruz lagundu dezake. Bazkideztza halabedi.eus webgunearen bitartez egin daiteke edo 945-12 27 38 telefonoan.

izango da ikasturte berrian. Horien artean, arrakasta izan duen Alai Bedi haurren programa ere eskainiko dute datorren astetik aurrera.

Mikel Gartzia gidatutako saioak bigarren urtea hasiko du, eta eskaintza zabaltzea erabaki dute. Hala, irratsaioarekin batera, 6-12 urte bitarteko neska-mutilek irrati tailerra egiteko aukera izango dute. Haurrek irratia barrutik ezagutuko dute eta ipuinak, albisteak, txisteak, igarkizunak, musika iruzkinak edota agenda kulturala irakurri eta entzungo dituzte. Gurasoei egingo da umek parte hartu ahal izateko harremana, alaibedisaioa@gmail.com helbidearen bitartez.

Zaharrak eta berriak, Hala Bedi bat eta Hala Bedi Biren nobedade guztiak azaroan egingo duten "parilladan" izango dira prest.



ARABA ENCOUNTER 2

2015eko urriaren 10-12

IRADIER ARENA (Vitoria-Gasteiz)

www.arabaencounter.org



Araba Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



ARABA encounter 02
2015 VITORIA-GASTEIZ

ZATOAZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA

0 €
/HIL

2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero,
hileko **50,9** €-an soilik (BEZa barne)

Kontratatu urriaren
15a baino lehen,
webgunean,
saltokietan edo
1717an.

euskaltel

Sustapen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alfa berriei aplikatuko zaie, 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa. Informazio gehiago, www.euskaltel.com-en.

NATALIA ALBENIZ

ARABAKO KULTURAREN MAHAIA SEKTORIALEKO BOZERAMAILEA

Kulturak bizi duen egoera "irauli" nahi dute lurraldeko sektore mahaia osatu duten kulturagileek; agintariek hartzen dituzten erabakiez harago, egitasmo sendo baten beharra aldarrikatu du Natalia Albeniz bozeramaileak. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Oinarri sendoak dituen kultura egitasmoa behar dugu Araban"

Kulturak lurraldean bizi duen "utzikeria" egoerari aterabidea emateko asmoarekin antolatuko du Arabako kulturaren mahaia, azken hilabeteetako hausnarketa prozesu luze baten ondoren. Sortzaileak ez ezik, kudeatzaile, bitartekari eta hartzaileek ere lekua dute bertan; erakunde publikoek bultzatzen dituzten politikei erantzuteko kulturagileen ahots bateratua osatzea eta beharrezko proposamenak lantzea ditu helburu, bertako bozeramaile Natalia Albenizek (Gasteiz, 1989) azaldu moduan. **Arabako kulturaren inguruko nolako hausnarketa egin duzue, mahaia osatzeko pausoa eman behar izateko?**

Egoera txarto dagoela uste dugu. Azken urteetan, batik bat, lurraldeko kulturak ahultzera egin duela uste dugu, beharrezko babesik gabe, eta horregatik erabaki genuen uda aurretik egoeraren azterketa bat egitea. Hainbat bilera egin genituen uztailetik aurrera eta lehenengo agiria atera genuen; helburua artearen kudeaketa publikoaren eta gure lurraldeko kultura antolatzen duten erakunde publikoen aurrean mintzaide nagusiak bilakatzea da, bertako politika kulturalen garapen egokia nabarmentzeko. Artea, kultura eta sorkuntza

garaikidea osatzen dituzten sektoreak bultzatu nahi ditugu, eta horrela, pentsamendu ekoizpen eta lurraldeko kultura sustatuko ditugu.

Zeintzuk dira kulturagileen arteko bilera horietan agertutako kezka nagusiak?

Kezka zerrenda luzea da, eta sektorez sektore desberdinak. Nik, adibidez, duela hilabete batzuk amaitu nuen Arte Ederrak ikasten eta erresidencia bekak botatzen ditut faltan. Bizkaia eta Gipuzkoarekin alderatuta, bestetik, egitasmo, lehiaketa, programa gutxiago dagoela uste dut. Bertako artisten lana ikusteko

aukera falta da; dantza edota musikarien lana ikusarazteko egitasmo gehiago botatzen dut faltan.

Garai hobeak izan dira?

Nik ez dut ezagutu, baina izan ditugun bileratan esaten dutenagatik, garai oparoagoak izan dira. Duela urte batzuk, esaterako, Amerika Asanblada izan zen eta ekimen gehiago zeuden. Nik unibertsitateko boletina jasotzen dut, kultura eskaintza guztiarekin, eta hemen askoz ere eskaintza txikiagoa izaten da.

Mahaiak Amerika Asanbladaren ildo jarraituko al du?



Joan den astean egin zuten Arabako kulturagileek sektore mahaiaaren aurkezpena. | J. RUIZ



Natalia Albeniz,
kulturaren mahaiko
bozeramailea.

ARITZ MARTINEZ DE LUNA

Lan ildoak berdina izango da, baina sektore ezberdinak batzeko asmoarekin beste izen bat jarri diogu, artista plastikoekin batera kulturako beste lagun batzuk ere batzeko; dantzariak, musikariak, zinema arlokoak... askotariak elkartu dira. Kulturaren lan egiten duen edo inguruan dabilen edonork parte hartu dezake; sortu edo kultura erabiltzailea bazara izena eman dezakezu gure webgunean *-mahaiaaraba.wordpress.com-*.

Zer pauso emango dituzue hemendik aurrera?

Oraindik sektore mahaia antolatzen ari gara. Hainbat lantalde izango

ditu; batetik, mahaia osatzen duten azpisailekin osatuko ditugu taldeak *-literatura, bertsolaritza, arkitektura, arte eszenikoak...-*. Beste alde batetik, sektore guztiek dituzten arazoak jorratuko dituen lantaldeak izango dira; arazo hauek ikusi, aztertu, eta txostenak egingo dituzte; ondoren, ikerketak, aukerak, hobekuntzak edo irtenbideak proposatzeko. Esate baterako, kulturaren inbertitu behar den %1 hori benetan betetzen den aztertuko dugu, edota praktika onak izaten diren, alegia artista batek egindako lanagatik kobratzen duen ikusiko dugu, edo zenbaitetan gertatzen den moduan,

kontratzen duenak ospea emango diolakoan ezer kobratu gabe egiten duen...

Erakunde eta agintariekin harremanetan jarri al zarete?

Momentuz ez gara kontaktuan jarri. Lehenengo agiria dugu prest eta badakigu talde batzuk interesa dutela gurekin harremanetan jartzeko, baina mahaia honek jendea irudikatu nahi du, alderdietatik aldenduta eta instrumentalizazioan erori gabe. Ez da erakunde edo alderdi politikoaren mahaia; hobekuntzak arlo guztietan egin nahi ditugu, egoera aldatu nahi dugu.

Euren erabakiek, ordea, baldintzatu dezakete zuen lana...

Azkenean euren ardura ere bada, noski, baina lehenik eta behin gure egin beharra da, kulturaren gauden eragileona; plana aldatzeko asmoa daukagu. Momentuz 200 bat lagunek egin dute bat eta beste batzuk ere gehitzeko bidean daude. Arabarentzako egitasmoa da, baina gustatuko litzaiguke bertako mugak gainditu eta beste lurralde batzuetara heltzea; momentuz, Arabako herritarrentzako proposamena da.

Agintarien araberako kultura plana izateak nolako ondorioak izan ditu?

Ez da onena izan eta horregatik saiatu behar dugu alderdiak egitasmo honen protagonista ez izatea. Gustatuko litzaiguke benetako oinarri sendoa duen plana osatzea, hori ari gara lantzen. Oinarritik azalera egingo dugu gero, baina horretarako denbora behar dugu, jendea guztia kontuan izan behar dugu eta iraunkorra izateko oinarri sendoa behar du.

Zein aldaketa ematea gustatuko litzaizuke?

Kulturaz dugun ideia aldatzea gustatuko litzaizake: kultura ez da ikuskizuna. Edo behintzat ez nahastea. Benetako kultura nahi dugu eta ez itxurazkoa. Herri mailan egiten dena ezagutzera eman nahi dugu, bertako jendeak aukera izan dezan euren lanak aurkezteko eta guztiengana heltzeko.

Krea eraikina izan da kulturgileen ahotan azkenaldian...

Arazoaren oinarriak lantzen ari gara, eta jorratu beharreko gai bat da, baina momentuz ez da premiazkoa; behetik gorantz eraiki nahi dugu.

IKER DURANA, IÑAKI LAZKANO ETA ANE PEDRUZO

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEKO LANTALDEA Bere lehenengo urtebetetzea ospatuko du Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak datorren ostegunean, urriaren 15ean. Atzetik, "lan handia"; aurretik, "erronka ugari". **I. ESTARRONA** GASTEIZ

"Sortzaile gazteak erakarri nahi ditugu Oihanedererrera"

Pilatzen hasi zaizkie paretan kartelak, hainbeste dira azken urtean antolatu dituzten hitzaldiak, ikastaroak, kontzertuak, emanaldiak. Lazarraga elkarteko kide, Oihaneder Euskararen Etxea aurrera eramateaz arduratzen dira Iker Durana, Iñaki Lazkano eta Ane Pedruzo gasteiztarrek.

Nola joan da Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeako lehenengo urte hau?

Ane Pedruzo: Gure buruari bost helburu jarri genizkien: euskal hiztunen komunitatea trinkotzea eta saretzea, euskaraz egindako sorkuntza suspertzea eta euskararen normalkuntzan ari diren eragileen sarea sustatzea, bai eta kultur erreferente bilakatzea eta euskara eta hizkuntzak interpretatzea ere. Hainbat hitzen bidez adierazi genituen: sortu, ikasi, erakutsi, entzun, dantzatu, galdetu, parte hartu eta antolatu. Horien arabera egituratu dugu gure programazioa: Sortegia ikastaroak (sortu), Hitz adina mintzo hizkuntz gutxituen zikloa (ikasi), Rockomikiak erakusketa eta Kortxeak eta krispetak zikloa (erakutsi), bai eta Eskilarapeko soinuak (entzun), Ilunabarrean dantzan (dantzatu), Solasalean elkarrizketak (galdetu) eta Gasteiztarrek Arraun The World argazki lehiaketa (parte hartu), batzuk aipatzearen.

Iñaki Lazkano: Azken finean, hizkuntzak dituen funtzio ezberdinei aukerak eman nahi genizkien. Denak ez ditugu garatu, baina konforme gaude martxan jarri dugunarekin.

Ospakizuna

URRIAREN 15EAN

20:00etatik 21:00etara: 'Bagara 1' lelopean, urtebeteko ibilbidea laburbiltzeko antzerki-ekitaldia eskainiko dute Kuku Bazar Gasteizko antzerki taldeko Montse Lopez eta Marta Lopez aktoreek.

Iker Durana: Oreakatua izan da gainera programazioa. Poliki-poliki, aurrera goaz.

Nolako harrera izan du gasteiztarren artean Oihaneder Euskararen Etxeak?

I. Durana: Ia zortzi mila erabiltzaile izan ditugu urtarriletik hona. Ona izan da publikoaren harrera. Alde horretatik, pozik.

A. Pedruzo: Jende kopurua ekin tzaren arabera izan da, baina gure lana ez dugu alderdi kuantitatibora mugatu nahi; kualitatiboki begiratuta ere, gauza ez hain jendetsuak baina benetan aberasgarriak egin izan ditugu.

Gasteiztarren aldetik, proposamen asko iritsi zaizkizue?

I. Lazkano: Gauza ezberdinetan dabilzan euskaldun eta euskaltzale asko etorri zaizkigu proposamenak egitera, eta ahal izan dugun guztietan gure programazioetan txertatu ditugu. Adibidez: erleen inguruko dokumental bat egina zuen lagun batek euskaraz aurkeztu nahi zuen Oihanederren, eta halaxe egin genuen; beste batek

Poetak Maiatzean zikloko euskarazko emankizunak hemen izatea proposatu zuen, eta lortu genuen. Badaude ere egin ezin izan ditugun gauzak, baina datorren urtean kabi-da izan dezaketanak.

Badituzue oraindik egitekoak, beraz...

I. Durana: Bai. Esaterako, hasiera batean nerabeak eta gazteak ziren gure helburu nagusietako bat, eta horretan ahalegindu garen arren, ez dugu horiek erakartzea guztiz lortu, ekintza batzuetara salbu.

"Gasteizko Kafe Antzokia legealdi honetan egitea espero dugu; 2008tik datorren proiektua da"

Arantza hori kentzeko lan egin beharko duzue datorren urtean?

I. Lazkano: Bai, guk nahiko genuke gazteak gurekin sorkuntza lanean inplikatzeko. Orain, Gasteizko euskara zerbitzuak gazteen sortzailetza bultzatzeko deialdia ireki du azaroaren 16ra arte, eta espero dugu Gasteizko gazte euskaldunek sormen proiektuak aurkeztea.

Instituzioen aldetik zer harrera izan du orain arteko zuen lanak?

I. Lazkano: Oihanederren beharraz eta izan dezakeen proiektzioaz jabetu dira. Gasteizko Udalari lotuta dago Oihaneder, eta bai aurreko agintariek eta bai berriek ere, oposizioko taldeak ahaztu gabe, egitasmoa babestu dute. Duela egun gutxi,



**Iñaki Lazkano,
Ane Pedruzo
eta Iker Durana**

I. ESTARRONA

"Hasierako aurreikuspena Montehermoso jauregi osoa Euskararen Etxea izatea zen, eta ez da hala izan"

gainera, alkateak esan du Gabonak baino lehen erabakita eduki nahi duela Gasteizko Kafe Antzokiaren kokapena; hau da, proiektuaren bigarren fasea.

Montehermoso jauregian Oihaneder Euskararen Etxea eta Montehermoso kulturunea daude batera. Horrek eragozpenak ekarri dizkizue? Euskararen Etxeko eraikin berean euskaraz ez diren gauzak ere egiten dira...

A. Pedruzo: Montehermoso jauregi etorri ginenean, osorik Euskararen Etxea bilakatzea zen aurreikuspena. Denborarekin, Udalarekin hitzartutakoaren kontra, aurreikuspen hori ez da bete eta bi proiektu gaude etxe berdinean elkarbizitzen. Ez gaude eraikinean guztiz ahaldu-

duta, baina hanka bat sartu dugu eta egokitzen ari gara. Eta bai, egia da: eraikinean gazteleraz entzuten da eta oraindik hizkuntza paisaia ez dugu ehuneko ehunean aldatzea lortu. Komunikatiboki ere pixkat eskizofrenikoa da, baina horrela egin beharko dugu aurrera.

Elkarlana da ere zuen bereizgarrietako bat, ezta?

I. Lazkano: Proiektu honen ezauzgarrietako bat kudeaketa partekatua da. Hobeto edo okerrago, Oihaneder eta Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua elkarlanean ari gara, eta hori beste inon gertatu ez den zerbait da: mugimendu sozial bat eta instituzio bateko zerbitzua elkarrekin lan egitea. Pozik gaude.

Gasteizko euskalgintzako topagune izateko ere urratsak ematen ari zarete ere?

I. Lazkano: Bederatzi hilabete hauek horren adibide izan dira: AEK-k, IKA-k, GEU-k, Bertsozale elkarteak eta Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarteak, batzuk aipatzearren, gauzak antolatu dituzte Oihanederren.

Apurka-apurka, erreferentziatzat hartzen ari dira, oraindik lana egiteko badago ere. Izan ere, Gasteizko Kafe Antzokia irudikatu genuenean, euskalgintzako talde ezberdinak etxe bereko teilatupean egotea aurreikusi genuen.

Eman zuen erronken berri. Zeintzuk dira?

A. Pedruzo: Orain arteko lana egonkortzea eta proiektua ezagutzera ematea, oraindik ezezaguna delako askorentzat. Horrez gain, egitasmoari osotasuna emango dion bigarren hanka behar dugu, Gasteizko Kafe Antzokia, Udalarekin adostuta eta ahalik eta eragile eta jende gehien parte hartuko duen hausnarketa kolektibo batetik abiatuta.

I. Lazkano: Kafe Antzokia legeingintzaldi honetan egitea da gure erronka. Proiektua 2008koa da: sozialisten legealdian ez zen egin eta PPren garaian ere ez zen egin: ea oraingoan lortzen dugun, Udalak hala onartu zuelako eta proiekturako beti egon izan delako diru bat gordeta, gasta-tu ez dena.



HAIZEA GALARRAGA
IDAZLEA

Atzerrian, baina etxean

Udazkenaren haize berriak gurera iritsi diren arren, atzo izan balitz bezala oroitzen dut udan egindako bidaia. Astebe-te pasa nuen Txekiar Errepublikan, lagunak konpainia ezin hobean. Makina bat dira esperientzia hark oparitu zizkidana paisaiak, bizipenak eta sententzioak, gomutagarriak horiek guztiak. Oraingoan, ordea, horietako bat ekarri nahiko nuke gogora. Akordatzeko naiz...

Asteko zein egune-tan bizi ginen jakin gabe, eta ordulariaren presiorik aspaldian sentitu gabe, egun pasa joan ginen hiriburutik gertu samar topatu genuen leku eder batera, Kutna Hora herrira, hain zuzen ere. Giza hezurrez gainezka zegoen kapera bat topatu genuen bidean, Kostnice izenarekin ezaguna. XIX. mendeko goseteen eta guden


ondorio izan ziren milaka hildako ez omen ziren hilerrian kabitzen; beraz, hezurtegi bat eraiki zuten bertan, handik gutxira eliza bilakatu zena. Berrogei mila hezur baino gehiago zeuden han, horietako asko bata bestearen gainean pilatuta, eta beste asko apaingarri gisa sabaitik zintzilik. Zirrargarria, gorputz guztiko odola izozteko modukoa.

Historia kontu horiek, aldiz, ez ziren deigarrienak izan. Elizaren harreraren, informazio orri bat eman ziguten, euskaraz. Bai, irakurle, ederki irakurri duzu. Eskatu gabe ere, euskarazkoa eman ziguten eskura. Sorpresa egundokoa izan zen, jakina. Espero gabekoa izatea ere bada zerbaiten seinale, suposatzen baitut ingelesez edota gaztelaniaz jaso zutenek

ez zutela halako usteka-bea sentitu. Halaber, pozak eta harrotasunak hartu gintuzten berehala, bat-batean etxean

"Elizaren harreraren informazio orri bat eman ziguten, euskaraz"

"Etxean bezala sentitu ginen. Pozaren ostean etorri zen lotsa"



HAIZEA GALARRAGA

bezala sentitu baikinen. Atzerrian, baina etxean. Pozaren ostean etorri zen lotsa. Lotsa, gure etxetik gertu, maiz, erronka handia izaten baita horrelakoak aurkitzea. Auzokideek urratzen dizkiguten hizkuntza eskubide batzuk errespetatu zizkiguten kanpoan.

Bagara nor, besteen begietara, Txekiar Errepublikan.

MINTZALAGUNAK ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#NazioForala

EAErentzat estatu politiko berria lortzeko Urkullu lehendakariak egindako proposamenek zeresana eman dute sare sozialetan; "nazio forala" eta "borondatezko bateratzea" moduko kontzeptuak izan ditu ahotan. **A.AMENABAR.** @anamenabar GASTEIZ



Santi Leone @ororostorm

Nazio foralak autonomiarekin duen harremana cup cake-ak madalenarekin duena bezalakoa da.



Nere.Etxaniz @nererribera

Haziak eta fruituak, foruak eta porruak, Estatutuak eta turutak. #Urkullu



Gorka Bereziartua @boligoria

Ez nuen nazio foral espresioa ezagutuko, hura kritikatzeko idatzi diren artikulua eta txioengatik ez balitz. Nork markatzen du agenda?



Oran @Orhantza

Ez badizute banatzen uzten, "borondatezko" batasuna? Borondatezkoa izateko aske izan behar da. Eta ez gara @iurkullu



Beñat Sarasola @bsarasola

DNI-a egin behar dudanean tramitea "nire borondatez" egiten dudala azpimarratuko diot polizia nazionalari. Akojonatuta utziko ditut.



Garbiñe Larrea @Gar2Larrea

Haziari fruitu gehiago atera nahi dio Urkulluk. Norbaitek esan behar lioke fruta arbolarari ongarri gehiegi emanez gero erre egiten dela.

ASTEKO ARGAZKIA



ZABALGANA BATUZ



ALEA

ZABALGANAN, ZIKINKERIAZ NEKATUTA

Urratutako koltxoiak, hondatutako altzariak, pilatutako zabor poltsak: "gehiegitan" errepikatzen dira argazkietako irudiak Gasteizko Zabalgana auzoan, Zabalgana Batuz auzo elkarrekin sare sozialen

bidez aste honetan salatu duenez. Egoerari aurre egiteko, "kontzientziazio kanpainak" eskatu dizkio Udalari, eta begirunea zaborra behar ez den lekuetan uzten duten auzokideei. I. ESTARRONA

ARABAKO KUADRILLAK

GASTEIZ

GARRAIOA



Angulemako geltokitik campuseraino luzatuko da tranbiaren ibilbidea; Salburura luzapena, aldiz, bertan behera utzi dute oraingo. | O. PUENTE

Tranbiaren ordeztu, autobus azkarrak Salburua lotzeko

Metro arina auzo berrietara eramateko proiektua bertan behera utzi dute oraingo, 'Bus rapid transit' sistema ezartzeko

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Tranbia ez da oraingo Salburura iritsiko. Gorka Urtaran Gasteizko alkateak hitz eman zuenaren kontra, kolokan geratu da gaur-gaurkoz metro arina auzo berrira eramateko asmoa. Horren ordeztu, "bus rapid transit" (BRT) sistema ezarriko du Eusko Jaurlaritzak.

Hala jakinarazi zion Iñigo Urkullu lehendakariak

Gorka Urtaran alkateari, asteartean Lehendakariatzan egin zuten bileran. Adierazitakoaren arabera, tranbia Angulema kaleko geltokitik campuseraino luzatuko dute. Unibertsitateetik gertu, eta gaur egungo "intermodal" izeneko geltokitik urrun, gune intermodala sortzeko asmoa dute Trianas zubia-
ren inguruan, Espainiako gobernuaren esku dagoen abiadura handiko trenaren

Gasteizko proiektua gauzatzen baldin bada.

Aurreikuspen horiekin, datozen asteetan sinatuko dute tranbia Unibertsitatearaino eramateko akordioa Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Datorren urtean ekin nahi diete hasierako lanei, 2019 urterako bukatzeko helburuarekin. Ordurako iragarri du Espainiak AHT-aren etorrera Gas-

teizera, eta orduan izango dira ere hurrengo udal-hauteskundeak.

"Baloratu beharrekoa"

Tranbia Salburura eramatea eta Zabalganara luzatzeko aukera aztertzea guztiz baztertu denik baieztatu gabe, alkateak BRT sistemak epe laburrean ekar litzakeen onurak nabarmendu ditu aste honetan komunikabideetan: "Bide propioa duen autobus



Munduan asko dira BRT sistemak; irudian, Peruko geltoki bat. | ALEA



BRT autobusek errei propioa dute; argazkian, Nanteseko linea. | ALEA

"Eusko Jaurlaritza txalotzen du Urtaranek, Gasteiz defendatu ordez"

JAVIER MAROTO
PP

elektrikoa da BRT, errailik eta katerik gabekoa; inbertsio ekonomikoa askoz txikiagoa da eta erantzun azkarragoa emango die Salburua eta Zabalzana auzoetako beharrei. Balaratu beharrekoa da".

BRT, bi fasetan

Duela 40 bat urte Hego Amerikan autobus azkarrak ezartzen hasi zirenetik, Europako hiri askotan ezarri dute "bus rapid transit" sistema. Eusko Jaurlaritzak Gasteizarako dituen planen arabera, lehenengo fasean hiria inguratuko du BRT lineak, eta bigarrenean, Salburua eta Zabalzana lotuko ditu. Datorren urtean bertan hasi nahi dute linea periferikoa diseinatzen. Aurrekontuaren %66a Lakuak ordainduko du, eta gainerakoa Arabako Foru

"Ekonomikoki eta jasangarritasun aldetik, tranbiaren alternatiba da BRT"

MIREN LARRION
EH BILDU

Aldundiak eta Gasteizko Udalak erdibana (%17,5 bakoitzak).

Iragarpenak laster piztu ditu erreakzioak auzoetan. Salburua Burdinbide elkarrekin adierazi duenez, "Udal gobernu berriaren lehenengo ehun egunen ondoren iritsi da lehenengo desengainua". Zabalzana Batuz elkarrekin, bere aldetik, adierazi du tranbiaren ordez BRT sistema

%66

JAURLARITZAREN ESKU
BRT sistemaren bi heren ordainduko ditu Jaurlaritzak; gainerakoa, Udalak eta Aldundiak.

"Salburua eta Zabalzana tranbiarik gabe ez geratzea espero dut"

PEIO LOPEZ DE MUNAIN
PSE

abiatzeko proiektua "alkateak berak irailiko elkarriketa batean agindutakoarekin talka" egiten duela, metro arina Zabalganaraino luzatzeko aukerak aztertuko zituela esan baitzuen duela hilabete bat.

Oposizioaren erantzuna

Oposiziotik, Javier Maroto PP-ko bozeramaileak gogor salatu du tranbiaren luzapen horri uko egitea: "Urkulluk mezu argia adierazi dio Urtarani: Eusko Jaurlaritza txalotzeko zaudete alkatetzan, ez Gasteizen alde gauzak eskatzeko". EH Bildutik, aldiz, BRT sistemaren alde onak azpimarratu ditu Miren Larrionek: "Sistematikoki aplikatzen diren soluzioetatik harago joan behar gara, Europara begiratu eta berrikuntzaren alde egin; eraginkortasun aldetik,

"Ehun eguneko gobernu eta gero, heldu da lehenengo desengainua"

SALBURUA BURDINBIDE
AUZO ELKARTEA

ekonomikoki, malgutasunari dagokionez eta hiriaren fisionomiari egiten dion kalte txikiagoagatik, tranbiaren alternatiba naturala da BRT". Horrez gain, etorkizunean EH Bilduren Araba Tran egitasmoa abiatzea eskatu du Larrionek, Agurain, Salburua, Gasteiz, Zabalzana, Jundiz eta Iruña Oka gaur egungo trenbidea baliatuz lotzeko.

Gasteizko sozialistek, aldiz, "BRT sistema tranbia ez ezartzeko aitzakia ez izatea" espero dute, Peio Lopez de Munainek adierazitakoaren arabera. Epe luzean suge berdea noraino iritsiko den ezbaian, epe laburrean Unibertsitatera tranbia linea eta Salburua eta Zabalganako BRT autobusak daude oraingoz Eusko Jaurlaritzaren mahai-gainean.



Ezkerretik eskuinera Isabel Garcia Alvarez, Belen Elejalde eta Marta Garcia. | AIARALDEA.EUS

ISABEL GARCIA ALVAREZ

KARISMA DENDAKO JABEA Elkartasuna helburu, hainbat lagun elkartu dira Amurrioko Karisma dendan, Siriara mantak bidaltzeko. **AIARALDEA ERREDAKZIOA** AMURRIO

"Mantak josten ditugu Siriako gerrara bidaltzeko"

Nola bururatu zitazun ekimen honetan parte hartzea?

Egia esanda ez zitzaidan niri bururatu. Bezero batek izan zuen horren berri. Whatsapp-en bidez heldu zitzaion jendea elkartzen ari zela Bilbon mantak josteko eta Siriara bidaltzeko. Nik Bilboko artile denda horretara deitu nuen eta esan zidaten Araban ere ekimena abiatu zutela Gasteizen. Berak eman zidan Gasteizko helbidea eta harremanetan jarri nintzen haiekin Facebook bitartez. Gasteizko emakume horrek azaldu zidan mantak josten ari zirela, Siriara bidaltzeko –ez errefuxiatuei helarazteko–. Bakoitzak etxean duen artilea erabil

daiteke, edo arropa zaharra birziklatu daiteke ere. Nahi duenak manta osoa egin dezake eta nahiago duenak metro erdiko karra-tuak egin ditzake eta guk elkartuko ditugu.

Gasteizko jendearekin harremana nolakoa izan da?

Ez digute informazio gehiegi eman. Azaldu digute ekimena Madrilen hasi dela. Hiru emakumek gudar-en arazoa dela eta lagundu nahi zuten eta ez zekiten nola. Beraiek josten dutenez, erabaki dute mantak egitea. Facebooken jarri zuten eta hortik zabaldu zen. Estatu osora hedatu da eta 48 hiritan egiten ari da. Eta herrietan ere, Amurrion bezala. Nik Gasteizko jendea aipatu nion hasteko asmoa nuela eta

oso ideia ona iruditu zitzaien.

"Madrilen hasi omen zen ekimena, eta Gasteizen ere talde bat dabil"

Amurrion taldea osatu duzue.

Bezero batek beste bati esan zion, horrek beste bati aipatu zion eta guztion artean erabaki genuen elkartzea. Oso talde anitza osatu dugu. Mota askotako jendea. Pertsona anonimokoak. Askok kalean entzun dute eta dendara hurbildu dira artile karra-tu bat uzteko edo galdetzeko. Gero guztiak elkartzen gara eta karratu horiek

josten ditugu.

Zenbat pertsona elkartu zarete ekimenaren inguruan?

Ostiralean eta larunbatean hamabost pertsona elkartu ginen. Eta beste moduren batean laguntzen, hoguei pertsona edo gehiago daude. Baina gero bakoitzak lagunen gauzak ere ekarri ditu.

Nork parte har dezake ekimenean?

Egitasmo irekia da, edo nork parte har dezake. Arratsaldetan elkartzen gara dendan eta urriaren 9an eta urriaren 10ean –ostirala eta larunbata– arratsalde hitzordua egingo dugu, 17:00etatik 21:00ak arte. Denda itxita egongo denez, erakusmahaiak kenduko ditugu eta horrela jende gehiago elkartzeko aukera egongo da. Gizonentzat ere irekia da ekimena, oraindik batek ere ez du parte hartu eta. **Noizko egin behar dituzue mantak?**

Urriaren 15ean Gasteizera eraman behar ditut. Karratu solteak izango balira aurretik egon beharko lirake baina nik konpromisoa hartu dut josi eta elkartzeko.



Arabako Lanak enpresarekin lanak kontratatzeagatik zigorra jaso dezake Barrundiak; irudian, udalerriko Dallo herria. | OZETAKO UDALA

Barrundia, Diputazioari kontu eske Arabako Lanak enpresaren kalteengatik

Sozietate publikoarekin obrak kontratatzeagatik isuna jaso dezake Lautadako udalerriak

ITSASO ESTARRONA

OZZETA

Arabako Lautadako hamahiru herri biltzen dituen Barrundiako Udalak aurrea hartu du Arabako Lanak enpresa publikoak lurraldeko herriei eragindako kalteen auzian: Lehiaren Euskal Aginteak irekitako espedienteak ekar ditzakeen isunak ordaintzeko eskatu dio Diputazioari, astelehenean EH Bilduk Udalbatzan aurkeztutako mozio bat onartuta.

Bata bestearen atzetik kateatu dira Arabako Lanak sozietate publikoaren kudeaketak eragindako arazoak, batez ere

aurreko legealdian Arabarri eta Araba Ur Agentzia elkartu zirenetik. Kontratazio prozesuak aztertu ondoren, Lehiaren Euskal Aginteak txosten gogorra argitaratu zuen pasa den ekainean, eta sozietate publikoak formula desagokiak erabiltzen zituela ohartarazi zuen, tartean lanengatik %6ko komisioa kobratzea eta akzio kopuru sinboliko batekin udalak akziodun bezala barne hartzea. Hori dela eta, foru-gobernuari eta lanak kontratatu zituzten Arabako herriei isunak jartzeko aukera aurreikusi zuen Lehiaren Aginteak ekainean. Zehazki,

egindako lanen kostuaren %5a ordaintzeko eskatu diezaieke Lehiaren Euskal Aginteak udalerrii.

Zigortutako horietako bat izan daiteke Ozetan

Isuna jaso dezakete herriek, Arabako Lanak enpresaren kudeaketagatik

egoitza duen Barrundiako Udala. Aukera horren aurrean, arau-hausteen "erantzule bakarra" Aldundia dela adierazi du onartu berri duen mozioan, "azken bi legealdietan

Diputazioak aurrera eramane duen kudeaketa txarraren ondorioz". Gertatzen hauek berriz errepikatu ez daitezkeen, "berme juridiko eskaseko zerbitzuak" bertan behera eskatu dio Barrundiak Aldundiarri; bereziki, Arabako Lanak eta Foru Planen esleipenen artean egon daitezkeen harremanak.

Herri gehiago zerumugan

Barrundiak eman duen urratsaren aztarna jarraitu dezakete beste zenbait herri datozen egunotan, tartean Añana, Aramaio, Artziniega, Bastida, Guardia, Lapuebla de Labarca, Moreda, Navaridas, Urizaharra eta Samaniego, bai eta Antoñana, Argomaniz, Larrinbe, Navarrete, Olabarri, Quintanilla de la Ribera, Durruma Kanpezu eta Santikurutze Kanpezuko batzar administrazioek, horiek guztiei igorri baitie Barrundiak aste honetako mozioa. Bitartean, handituz doa isun posible baten itzala.

Aramaioko txoko guztiei sagar usaina darie

Aurtengo uzta "oso ona" dela jakinarazi dute sagarrondoak dituztenek; fruitu asko eta oso kalitate onekoa dela diote



Juan Mari Arriolabengoa joan den astean, Jose Luis Madina lagunaren sagarrondoetan. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI

ARAMAIO

Urteak dira Aramaioko sagarrondoak ez daudela aurten bezain eder eta ikusgarri; osasuntsu dauden sagarrez beteta daude. Eta udazkenarekin batera, fruituak jasotzeko garaia heldu da, eta horretan dihardute buru-belarri baserri askotan; tartean, Zalgo auzoan 40 sagar motako sagarrondoak dituen Luis Mari Madinaren etxean.

Pozik dago aramaiarra aurtengo uztarekin; haren esanetan, badira "hamar bat" urte horrelako uztarik jasotzen ez dutela. Udaberriako bazekiten kanpainak onatzen duela, zuhaitzak lorez beteta zeudelako, eta

uda partean izandako eguraldi eguzkitsuak fruitu onak eman ditu.

Sagardoa eta zukua

Baina, sagar horiek guztiak jaso ostean zer? Aramaioko baserrietan sagardoa eta zukua egiteko ohitura dago. Batzuk etxean bertan egiten dute, baina beste askok Aramaixoko Sagartzalien Elkarteak bazkideendako zein nahi dutenendako eskura duen makineria erabiltzen dute. Udalerrikoek gain, asko dira kanpotik etorritakoak; Arabatik, esaterako, Legutiotik, Ozetatik eta baita hiriburu ondotik ere.

Prozesua samurra da: lehenenik eta behin, eraikinaren kanpoaldean

dagoen sagarrak garbitzeko makina dago; ahalik eta denbora gutxien batuta edukitzea gomendatzea rekin batera, ohartarazten da ez dela sagar ustelirik bota behar. Sagarrak garbi daudenean, eraikin barruan dagoen prentsara bidaltzen dira. Ordu eta hiru ordu laurdeneko prozesua da hori, zuku guztia

atera arte. Sagar kilo bakoitzeko, litro erdi zukutik gora lortuko da.

Zukua iragazi ostean bi aukera daude: sagardoa egiteko erabili. Kasu horretan, etxetik ekarritako barrika batean sartuko da eta apirilera arte edo hor barruan egongo da. Edo zukua ere egin daiteke. Horretarako Aramaixoko

800

KILO

Sagarrak txikitzen eta prentsatzan dituen makinan 800 kilo inguru sartzen dira.

5

ORDU

Horixe da sagarren zukua edateko gertu egon dadin behar den denbora.



Zalgo auzoan sagarrak batzen dihardute. | M.BITERI



Zukua edo sagardoa egiteko prozesua. | M.BITERI

Sagarzalien Elkartek duen gunean bertan pasteurizatu da; zukuak 82 graduren bueltan hartu eta hamar minutuz bertan egon ostean, botiletan sartu eta itxi egingo da; hozten utzi eta edateko moduan izango da zukua. Botilak etxetik ekarri daitezke, baldin eta behar bezala desinfektatuta baldin badaude; eta bestela, bertan dituzten botila berriak ere badaude erabilgarri.

Prezioari dagokionez, Aramaioko Sagarzaleen Elkarteko bazkideek prezio berezia dute. Horren harira, aipatzekoa da elkarteko bazkideek dirua jarri behar izan zutela dena martxan jartzeko, eta horrez gain, urtero ere

kuota zehatza ordaintzen dute elkarteko kide izateagatik. Kanpokoek, berriz, litro bakoitzeko 1,55 euro ordainduko dituzte zerbitzuak erabiltzeagatik.

Askotariko bezaroak

Esan bezala, kanpokoak dira bezero asko. Joan den egunean ALEA aldizkariak hara egindako bisitan, esaterako, Itziar eta Eibarretik zetozen sagarzialeekin egin zuen topo. Bigarren urtez erabiltzen zituzten elkartearen makinak; etxetik gertuen dituztenak direla ere azaldu zuten.

Abendura arte hartu ahal izango dira txandak bertan, astegunetan zein asteburuan, 08:00etatik 20:00etara bitartean.

JUAN MARI ARRIOLABENGOA

SAGARZALEEN ELKARTEKO KIDEA Hasi berri den kanpaina eta elkartearen berri eman du Juan Mari Arriolabengoa aramaioarrak datozen lerroetan.

"Egun, 30 bat baserritan egingo da sagardoa"

M.B.

ARAMAIO

Aramaixoko Sagarzalien Elkarteko presidentea da azkenaldian Juan Mari Arriolabengoa aramaioarra.

Noiztik dago martxan elkar- tea?

2007. urtean sortu zen, baserriko sagarrei irtenbidea ematearren. Lehen sagarrak oso garrantzitsuak ziren eta era askotan jaten ziren; baina gaur egun urte denean fruta guztiak ditugu, eta dagoeneko ez dira hain preziatuak. Sagar zukua oso ondo kontserbatzen da, eta oso ondo edaten da edozein ordutan.

Zenbat bazkide ditu gaur egun elkartek?

Orain gaude 33 bazkide; guztiak ez dira bertakoak. Estatutuek diote %25 kanpokoak izan daitezkeela.

Nolako harrera du sagar zukua edo sagardoa egin ahal izateko guneak?

Ona. Gainera jendea animatzen dabil sagarrondoak jartzen. Aramaion, dena dela, jende asko dago sagarrondoak dituen eta elkartean ez dagoena. Betidanik egon da Aramaion sagarrondoak izateko ohitura, eta baserri askotan sagardoa edo zukua egiteko trankuluak dituzte etxean. Nahi duzunean egiteko aukera ematen du horrek; hemen, berriz, txandak hartu behar dituzte bazkideek zein kanpokoek; horrez gain, produktua ere ekarri egin behar da.



J.M. Arriolabengoa. | M.B.

Kanpotarrak. Asko al dira honaino etortzen direnak?

Bai. Nik esango nuke %60 inguru dela. Euskal Herri osotik datoz, baita arabarrak ere.

Bestalde, lanez lepo egongo zarete orain?

Hala da. Irailaren 15ean hasi ginen. Agudoago dator aurten sagarra; beroa eta eguzkitsua izan da aurtengo uda. Datoren bi asteotarako hartuta dago txanda.

Uztari dagokionez, nolakoa da aurtengo sagarra?

Oso ona. Udaberri ona egin zuen, eta loreen polinizazioa oso ona izan zen; ondorioz, lore asko geratu zen. Uda ere aproposa izan da, eta sagar asko eta ona dago. Iaz, hemendik, 80.000 kilo; aurtun, 100.000 kilo ingurura helduko gara.

Zukua bai baina sagardo- zaleak ere bazarete Ara- maion ezta?

Bai. Betidanik egon da sagardoa edateko ohitura; Sagardo Eguna eta guzti dugu. Irailaren 27an egin da aurtun; 13 ekoizle batu ginen han. Egun, 25 eta 30 bat baserritan egingo da sagardoa.



Arabako Aldundiko hainbat ordezkari izan ziren joan den larunbatean Añanako gatzagetan egindako ekitaldian. | QUINTAS

Europa Nostra saria banatu dute, Añanako gatzagetan egindako ekitaldi batean

Europako kultura ondarearen lehengoratze saria jaso du Añanako haranean egindakoagatik

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
AÑANA

Añanako gatzagetakoa lehengoratze lanak Europa Nostra saria jaso du aurten, egindako lehengoratze beharrei eskaintzen zaien Europako aitortpen gorenarekin, eta Añanan bertan jasotzeko aukera izan zuten joan den asteburuan herriarrek. Sariarekin batera, 10.000 euroko laguntza ere jaso dute egitasmoarekin aurrera jarraitzeko.

Europa Nostrako batzordeko kide Jose Maria Ballester eta Hispania Nostrako presidente Araceli Pereda arduratu ziren saria banatzeaz, ordezkari politiko eta kultural talde zabal baten aurrean. Ramiro Gonzalez patronatuaren presidente eta

Arabako ahalzun nagusia, Igone Martinez de Luna kultura diputatua, Eduardo Fernandez de Pinedo Añanako Kuadrillako presidentea eta Andoni Erkiaga Añanako Gatz Harana Fundazioko gerentea izan ziren, besteak beste.

Joan den apirilaren 14an jakinarazi zuten Europako Batzordeak eta Europa Nostrak, sarien sustatzaileek, Añanako gatz harana zela Europako 29 herrialdetatik aurkezturiko 263 proiektuen artean hautaturiko bat, eta ekainaren 11n egin zuten sari banaketa, Osloan.

"Lan bikaina"

"Sari honek guztioi erakusten digu gatz harana leheneratzeko eta balioes-

teko egiten ari den lan bikaina, baita zer nolako ondorio apartak eragiten ari den", nabarmendu zuen ekitaldian Ramiro Gonzalezek, Arabako ahalzun nagusi eta Añana Gatz Harana Fundazioko presidentea.

Aditu independenteek osaturiko epaimahaiak Añanako ondarearen eta abian jarritako egitasmoaren ezaugarriak nabarmendu ditu: "Proiektuaren hedadura ikusgarria da, paisaia, arkitektura, ingurumena, gatz jarduera eta horren baitako tradizioak barne hartuta, baina baita modu orokorrean hartuta lurralde osoa ere, ekimen kultural eta turistikoaren bitartez, garapen sozial, kultural, ekonomi-

ko eta turistikoa bultzatzen ari direnak". Europako kultura ondarearen aldeko lanean izan beharreko sormenari eta berrikuntzari dagokionez "oso adibide garrantzitsua" dela azpimarratu du.

Era berean, nazioarteko oihartzun "zabala" izan duela aipatu du epaimahaiak: "Haren lehengoratzeari eta Añanako gatzaren esportazioari esker; Euskal Herriko sukalde entzutetsuenetan ez ezik, nazioartean ere aitortpena dauka". 25 herrialdetan baino gehiagotan saltzen da gatz.

6.500 urtetik gora

Gatz harana izeneko paisaiak 6.500 urtetik gorako historia dauka. XX. mendean erdialdean ekoizpenak behera egin zuten, industria modernoaren gorakada tarteko, gatzagak mantentzeko lanak murriztu egin ziren eta tokia gero eta gehiago hondatu zen.

Egoera hura aldatzeko xedez, leheneratzeko proiektu handi batean hasi ziren haranea, tokiaren leheneratzea eta kontserbazioa eta arkitektura barne hartu dituen proiektuarekin.

Matrikulazio kanpaina amaitu ostean euskara ikasteko eskolekin hasi dira

Eskualdean hiru talde osatu dira aurtengo ikasturteari begira, bi Kanpezun eta hirugarrena Lagranen; Maeztun ez da atera



Escola teorikoen ostean, ikasitakoa praktikara eramateko ordua da kafe bat hartuta. Horixe da Langrango taldeak egiten duena. | ALEA

MIRIAN BITERI

LAGRAN

Amaitu egin da euskara ikasteko matrikulazio kanpaina eta taldeak osatzeko eta ikasturteari hasiera emateko garaia da orain. Euskal Herriko gainerako txokoetan bezala, Mendialdean ere horretan dihardute. Fin dabilta, Lagranen, esaterako, eskolekin hasi direlako dagoeneko.

Pasa den astelehenean hasi ziren herri horretan batzen. Zazpi ikaslez osatutako iazko talde bera da, baina lagun berri batekin; ikasle berezia da azken hori, 30 urtetik beherakoa delako. Horren harira, gogoratzekoa da orain arte horretan ibilitakoak 35 eta 70 urte bitartekoak direla.

Aurten ere Ane Belaustegi irakasleak gidatuko ditu saioak. Azpimarratu nahi izan du joan den urte-

"Hiztegia erabiltzen eta gramatika ikasiko dute, euren neurrira"

ANE BELAUSTEGI
EUSKARA IRAKASLEA

ko eskoletara "oso pozik eta oso jarrera onarekin" etorri zirela, eta horren ondorio dela aurten ere taldea eratu egin dela. Horrekin batera, nabarmendu du "ia hutsetik" hasten den taldea dela, eta hortaz, "helburuka" joango direla ikasturtea antolatzen: "Gramatika eta hiztegia ondo erabiltzen ikasiko dute, helburu bakoitzaren arabera. Esaterako, norberaren burua aurkezten jakitea ikasi egingo dute".

"Senideekin euskaraz egin nahi dutenekin talde bat osatu da"

ZURIÑE SAENZ
KANPEZUKO EUSKARA ZINEGOTZIA

Iaz bezala, astean bi bider elkartuko da Lagrango taldea, astelehen eta asteazken arratsaldean; denera, bost ordu.

Kanpezun, beharrei begira
Lagranen ez ezik, Kanpezun ere bi talde atera egin dira aurtengo ikasturteari begira; iaz ere bi izan ziren. Ikasleen beharretara egokitutako taldeak osatu dituzte. Batean maila ertaina (B1 eta B2) edo euskararekin nolabaiteko lotura duten kanpezuarrak

elkartu dituzte; hauek ere bost ordu izango dituzte astean, astearteetan eta ostegunetan, iazko irakasle berdinarekin.

Bigarren batean, "euskararekin kontaktua" izan nahi dutenak daude; bertako Euskara zinegotzi Zuriñe Saenzen esanetan, talde hori osatzen duten gehienak "amak" dira, "beraien senideekin euskaraz egin nahi dutenak; azken hauek ez dituzte eskola teknikoak bilatzen, hizkuntzarekiko kontaktua da nahi dutena". Hori kontuan izanda, astean hiru orduz ikastearekin nahikoa dela uste dute; astelehenean eta asteazkenetan elkartuko dira talde horietakoak.

Bestalde, Arraia-Maeztun talde barik geratu dira aurten; ez dute lortu osatzea.

Trebiñu, "historiaurreko paradisua"

Martinarriko ikerketen arabera

Indusketak egiten ibili dira bost astez; historialariak pozik daude aurkitutakoarekin, oso kanpaina aberatsa izan dela diote

MIRIAN BITERI

OBEKURI

Agerian geratu da beste behin historian zehar Trebiñuk izandako garrantzia. EHUKo irakasle Alfonso Aldayk gidatuta, ikasle taldea ibili da bosgarrenez Obekuriko Martinarriko aztarnategi arkeologikoan; bost astez jardun dute indusketak egiten eta oso-ko pozik daude bertan topatutakoarekin.

Martinarri izeneko babeslekuak 40 bat metro karratu ditu, eta aurrean, zelai batez inguratuta dago. Azken urteotan, aterpe zein zelaiaren 17 metro induskatu egin dituzte; zuloak metro bateko sakonera du.

13.000 urte atzerago

Bertan egindako lanek agerian utzi dute orain dela 13.000 urte gizakia zegoela bertan; hain justu ere, Goi-Paleolitoan edo Glaziazioaren azkenaldian. Aldayren ustez, 4.000 bat urtez hutsik egon ostean, orain dela 9.000 urte inguru gizakia itzuli egin zen Martinarrira.

Ordurako guztiz ezberdina zen klima, eta inguruneak basoz beteta zeuden. Basoz eta baita askotariko animaliaz ere. Horren harira, honakoa azaldu du Aldayk: "Urte hauek guztietan ehizarako zein animaliak zatitu ahal izateko lanabes asko topatu ditugu; silex materialarekin zeuden eginda horiek, Trebiñuko Araiko, Urbasa eta baita Kantauri mendilerroetatik ekarritako silexarekin".



Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak debalde lan egiten. | ALFONSO ALDAY

Horrez gain, ehizatutako animalien hondakinak ere topatu izan dira.

Etxola baten aztarnak

Aurtengo indusketetan, gainera, etxola baten aztarnak ere agertu direla jakinarazi du historialariak: "Babeslekuaren ondoan etxola egin zutela baieztatu ahal izan dugu; harritzatutako zorua topatzearekin batera, bazterretan pilareentzako zuloak topatu ditugu. Berrikuntza garrantzitsua da hori; ez baita ohikoa garai hartako etxolak aurkitzea".

Aldayk azaldu du etxola barruan lanabes asko agertu direla, eta horren kanpoaldean, berriz, animalien hondarrak. Horrek ezer esan nahi du? Irakaslearen esanetan, garai hartako gizakia zelatan antolatzen ziren utzi dute aurkikuntza horiek age-

"Nahi beste silex, baso eta animalia zituzten bertan garaiko biztanleek"

"Ondorioztatu dugu Martinarri inguruan aztarnategi gehiago daudela"

ALFONSO ALDAY
HISTORIALARIA

rian: "Baieztatu ahal izan dugu animaliak txikitzeke eta horiei azala kentzeko lanak etxola kanpoan egiten zituztela".

Animalien hondakinei dagokionez, haginak, buruak eta gorputz-adarrak baino ez dira azaldu. Horren harira, honakoa esan du: "Okel zatirik handienak inguruan kokatu-

tako beste herribildu batzuetara eramaten zituzten. Martinarri sare zabalgago baten parte zen eta inguruan aztarnategi gehiago ere egongo dira seguruenik". Horietako batzuk dagoeneko kontrolpean dituzte, hala nola, Azazetan dagoen Atxoste, Lañuko Montico de Charratu edo Pobeseke Socuevas.

Guzti honekin zera ondorioztatu du Aldayk: "Trebiñu Historiaurreko paradisua zen. Nahi zituzten silex, baso eta animaliak zeuden bertan".

Datozen urteotan Martinarriko indusketekin jarraituko duten edo ez zehazteke dago. Aldayk gogorarazi du aztarnategi arkeologikoa Trebiñun dagoenez, erakundeek ez dituztela lanok finantzatzeko, eta hortaz, hara doazenez musu-truk egiten dutela lan.



Erakunde zein enpresa pribatuak daude ordezkatuta Lavinek gidatzen duen elkartearekin. | ALEA

JUAN MANUEL LAVIN SANTAMARIA

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEKO PRESIDENTEA Turismoa sustatzea helburu duen elkartearen berri eta asteotarako hainbat plan eman ditu Lavinek **M.BITERI GUARDIA**

"Sasoi honetako mahastiek jende asko erakartzen dute"

Zer da Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea? Eskualdeko alde publikoa eta pribatua batzen duen elkarte publiko-pribatua da. Arabako Errioxan dauzkagun 23 gune herritarrak ordezkatzeko dituzten 15 udalez osatuta dago. Gainera, 120 enpresa pribatu ditugu: upeltegiak, hotelak, jate-txeak, tabernak, enotekak, museoa, spa eta zerbitzu turistikoa edo garraio zerbitzua eskaintzen duten enpresak. Bestalde, Rutas del Vino de Españaren eta Euskadi Gastronomikaren kide ere bada elkarteak.

Zein da helburua?

Arabako Errioxa destino bezala sustatzea; bertako herriak, jendeak, enpresak, bere ingurugiroa, paisaia, kultura, gastronomia, ohi-turak... Azken finean, bere berezitasuna.

Eta horretarako, zer da eskaintzen duzuen?

Eskualdeak zerbitzu eta esperientzia aukera zabaldua eskaintzen du, helburu batekin: turistikari erakutsi eta nabarmendu Arabako Errioxak emateko duen guztia (herriak, jendea, gastronomia...). Eta guzti hau, turistikari nahi duen bezala goza dezan:

lagunekin, erosketak egin, upeltegiak bisitatu, pintxo-pintxo, menuz-menu lurraldeko ardoekin bat eginez, ardoaren pasioaz gozatzeko, askotariko hizkuntzetan...

Zein da Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearen bezeroen profila?

Bisitariak gain, kazetariak, bidaia-agentziak, blogariak, aisialdi enpresak eta bestelakoak jartzen dira gurekin harremanetan, beraiei bezeroei Arabako Errioxak dituen aukera guztiak eskaini ahal izateko. Gehiengoak, Euskadi, Katalunia eta Madril

datoz. Publiko anglosaxoi eta nazioartekoari buruz hitz egiten badugu, nabarmendu behar dugu aurten, %15 igo egin dela bisitari hauen etorrera: herrialde nordiko, Frantzia, Alemania eta Italia koak dira gehienak.

Errepikatu egiten dute bezeroek?

Bai. Errepikatzen duten bisitariak ditugu, herrialde guztia ezagutzen joaten direnak bidaia bakoitzean. Hauek gehienbat euskaldunak dira baina beste lurralde batzuetako bezero fidelak ere baditugu. Atzerriarrak dira Arabako Errioxa gutxien ezagutzen dutenak eta bisita gidatu gehien eskatzen dituztenak.

Zubitxo bat dator, urriaren 12an jai-eguna da eta. Arabako Errioxa bisitatu nahi dutenei zer eskainiko zenieke?

Ohiko jardueraz gain, upeltegiak bisitatu, Erdi Aroko gure herri politikak ezagutu... Zubi honetan, turistikari oraindik gure herriko bizilagunei mahats-bilketa lanetan ikusi ahal izango dituzte; gainera, mahats-bilketan parte hartu dezake eta egun batez enologo bezala lan egin ere. Jende asko animatzen da sasoi honetan gure mahasti okre, gorri eta hori zoragarriak ezagutzera etortzera.

Eta betiko planez gain, badaugu aurten inongo berezitasunik?

Bai. Aurten, Inaziotar Bidea, gastronomia eta mendi-martxa irteerak lantzen ari gara. Azken hiru hilabete honetan, produktu zehatzak kaleratzea pentsatuta daukagu. Adibidez, azaroaren 14an herri-ibilaldia antolatzen gaitza, menu eta pintxoak lurraldeko ardokin bat eginez, eta hainbat ibilbide, GR-99 eta GR-38 bezala.

Abangoardia...

Etorkizunez jantzita iritsiko dira orainaldiko doinurik apurtzaileenak Gasteizera: Mugako bezala bataiatua, musika elektroniko garaikidearen lehenengo jaialdia ospatuko da asteburuan Artiumen, Kubik-en eta Hor Dago! tabernan. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Oraina eta geroaren arteko mugan dantzan, Mugako jaialdi berria iritsi da Gasteizera. Abangoardia, esperimentazioa, sormena, elektronika, technoa eta eskaintza ludikoa abiapuntu, Euskal Herria, Espainia, Suedia, Txile eta Alemania bezalako tokietako hogeitazortazale baino gehiagok eskainiko dituzte euren lanik berrienak urriaren 9an eta 10ean (ostirala eta larunbata), hiri-ko hiru agertokitan.

Egunean zehar, Artium eta Hor Dago! tabernan ospatuko da jaialdia. Arte garaikidearen museoari dagokionez, hamabost emanaldi eta *showcase* (formatu laburreko

erakustaldiak) eskainiko dituzte ostiral eta larunbatean, arratsal-

Ekintza osagarriak

IKASTAROAK

Urriaren 9a, ostirala: 'Sintesi teknikak perkusio elektronikoaren sorreran eta diseinuan', 18:00etatik 20:00etara Artiumen, Boris Dividerren eskutik (25 / 35 euro).

Urriaren 10a, larunbata: 'Mugako kids' umeentzat saioa, 11:00etatik 14:00etara Artiumen, Play N Kids-ekin (4 euro; 2 urtetik behera, doan).

dean hasita eta gauerdian sartu arte; horrez gain, ekintza didaktikoak egongo dira bertan: larunbatean, sintesi teknikak ikasteko tailerra; eta igandean, umeentzat *dj*, *disco play* eta *rock star* makillaje saioa. Alde zaharreko Falerina lorategian, aldiz, bi izen arituko dira larunbat eguerdia girotzen, 12:00etatik 15:00etara.

Gauetz, General Alava kaleko Kubik aretoan piztuko da sukar elektronikoa. Guztira, sei musikari arituko dira ostiral eta larunbatean eguna argitu arte. Asteburu osorako sarrera 55 euroan eskuratu daiteke; ostiralekoa, 25 euroan; eta igandekoa, 35 euroan.

Musika elektroniko garaikidea ekarriko du Mugako jaialdiak.

ALBERTO MONTES BARAJAS





Europa osoko dantzak
dantzatzen dira
'balfolk' saioetan.

CAROLINE BAYET

...eta tradizioa

'Ilunabarrean dantzan' izenburupean, euskal dantzak eta Europa osoko dantza tradizionalak ikasi eta dantzatzeko saioak antolatu ditu Gasteizko Oihaneder Euskararen etxeak hilean behin, ostiral arratsaldetan **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Udaren amaierarekin batera Dantza Plazan saioak bukatu direlako kopetilun dau denentzat, eta folk dantza berriak probatzeko grina duten dantzazaleentzat, Ilunabarrean dantzan zikloa hasiko da urriaren 9an (ostirala), Oihaneder Euskararen Etxean.

Frantzia, Belgika, Suitza, Italia, Alemania eta Holanda bezalako Europako bazterretan ohikoak diren 'balfolk' dantzaaldien izaera edukiko dute saioek: zuzeneko musikaz lagunduta, kontinente zaharreko folk dantza tradizional ezberdinak ikasi eta dantzatzeko elkartuko dira parte-hartzaileak, euskal dantzak barne.

Ander Zabaleta musikari gasteiztar gazteak gidatuta, bi atal izango ditu saio bakoitzak: lehenengo zatian, Europako dantzaren bat

Hiru ostiral

OIHANEDER (Sarrera librea)

Urriaren 9a, 19:30: 'Scottish' ikastaroa (Bavaria, Alemania) eta euskal dantzak.

Azaroaren 13a, 19:30: 'Mazurka' ikastaroa (Mazovia, Polonia) eta euskal dantzak.

Abenduaren 11, 19:30: 'Bourrée' lantegia (Auvergne, Frantzia) eta euskal dantzak.

ikasiko dute bertaratutakoek; ondoren, ikasitakoa praktikan jarriko dute eta, behin oinak berotuta, euskal dantzetan arituko dira.

Bavariako *scottish* bikote-dantza izango da zerrendan lehena, gaztelaraz *chotis* bezala ezaguna ere. Izen

horrekin eta *chamamé* deiturarekin ezagutzen dute Argentinan, eta beste hainbat abizen jarri dizkiote munduan zehar: *xote* Brasilen, *jenka* Finlandian eta *choutiça* Portugalen, besteak beste.

Bost mende atzera egin, eta XVI. mendean Poloniako gortearen eta nobleziaren *mazurka* dantzan ari zea izango da hurrengo erronka, azaroaren 13an. Abenduko zubia eta gero, abenduaren 11ko saioan hain zuzen, erritmo bizian mugituko dira dantzazaleak, Frantziako XVI. mendeko *bourrée* dantza energikoarekin.

Sarrera librea

Izena emateko beharrik gabe eta dohainik, hilean behin izango dira saioak, ostiral arratsaldetan, urriaren 9an hasita. Nahi beste saiotan parte hartu daiteke.

Plataforma digitalak

Ordenagailuko pantaila telebista ordezkatzan ari da, serieak eta filmak ikusteko hainbat aplikaziori esker. Zein hedapen izango dute plataforma horiek gurean? Galdera hori ekarri du oraingoan Oreka IT-k ALEA-ra. **OREKA IT** @OrekaIT_eu GASTEIZ

ANDER BUSTAMANTE
Informatikaria
OREKA IT



Euskal zinemak, azkenaldian, berri onak baino ez dizkigu ekartzen; eta, ohituratzat hartzen ari bagara ere, goraipatu beharreko zerbait da. Berri hauen artean, *Loreak* filmaren arrakasta da orain entzutenena, Oscar sarietan parte hartze-ko aukera oso gertu baitu, ingelese ez den hizkuntza batean egindako film onenaren Oscar Sarirako, hain zuzen ere.

Baina oraingoan ez dut filmaren inguruan hitz egingo, horretaz gehiago dakiten askok jada artikulua eta artikulua idatzi baitituzte. Hurrengo lerroetan, fenomeno honen eta teknologia berrien arteko lotura diren plataforma digitalen inguruan arituko naiz.

Telesailak, on line

Orain dela gutxi jakin dugu hila-bete honetan munduko plataforma hauetariko famatuena den Netflix estatu osora iritsiko dela. Oraindik ez dakienarentzat, plataforma digitalak, filmak eta telesailak on line ikusteko aukera ematen diguten interneteko baliabideak dira. Teknologia berriak, arlo honetan ere, betiko formatuei aurre egiten ari zaizkie. Kasu honetan, alegia, erron-

ka izugarria daukate: telebista ordezkatzea.

Argi dago erronka izugarria dela, baina aurrerapenak egiten ari dira. Estatu Batuetan, Netflixek hedapen handiena duen herrialdean, etxe askotan ordenagailuaren pantailak telebista bera ordezkatu du.

"Gutxiago erabiltzen ditugu hemen aplikazioak; besteak beste, daukagun ingeles mailagatik"

Honela, film edo telesail bat ikusi nahi dutenean, konektatu eta *play* botoia baino ez dute sakatu behar, edozein ordu zein egun delarik. Gainera, telebista kateen kalitatearekiko dauden zalantzak eta zinemaren prezioak kontuan hartzen baditugu, ez da harritzekoa alternatiba berrien hazkundea.

Ukatu ezin dena da gero eta jende gehiago moda honetan murgiltzen ari dela, hemengo zein kanpoko produkzioak astero jarraituz. Zerbitzu asko dauzkagu jada eskura, eduki askorekin eta prezio lehiakorrekin, baina oraindik beste toki

askotan baino dezente gutxiago erabiltzen ditugu.

Hizkuntza, "traba"

Honen arrazoi nagusietako bat hizkuntza desberdinen jakintza da, nire ustez. Hemen ez bezala, herrialde askotan ingelese jende gehienak ezagutzen baitu, eta maila altuan gainera, hau edonon sortutako telesailak ikusteko erraztasun izugarria delarik, bikoizteak kostuak handitu eta epeak luzatzen dituelako. Honekin ez dut esan nahi hemengoak diren produkzioak baino ez direnik ikusi behar, *Loreak* filmaren arrakasta eredu dugularik, etxekoa bultzatu behar dugu, baina kanpotik etorritako serieak ere ikusi nahi baditugu, hizkuntza traba bihurtuko zaigu.

Ikusteko dago nolako arrakasta izango duen Netflixek gurean, baina hedapen handia izatea espero dezagun, gure etxeetara hainbeste entretenimendu ordu ekartzeko gai den zerbitzu bat beti baita positiboa. Eta, guk Kalifornian egindako telesailak ikusten ditugun bezala, kalitatezko gauzak egiten jarraitzen badugu, zeinek daki noraino bidal ditzakegun Euskal Herrian egindako guztiak plataforma digitaletan zehar.

Enpresa Aholkularitza · Aholkularitza Informatikoa · SAP ERP · BI · CRM
Kontularitza · Nominak · Fiskalitatea · Web Garapena · SEO · Hosting

oreka i.t.

Oreka Information Technologies

facebook.com/orekaIT · twitter.com/OrekaIT_eu · orekait.com/blog
orekait@orekait.com

945 067 219

Zumarren hiribidea 1, 243 Bulegoa - Vitoria-Gasteiz



zerbitzua euskaraz



Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak



Antzerkirako sarrerak

ALEAK **bi pertsonentzako** sarrera bikoitza zozketatuko du, Gasteizko Baratza aretoan euskarazko *Salto* antzezlanaren ikusteko, azaroaren 8an (igandea), 19:00etan. Eman izena **urriaren 12a** baino lehen; 16an jakinaraziko dugu irabazlea.



Zainzuri sorta

Nafarroa hegoaldean nekazaritza eta euskara bultzatu nahi dituen Errigora ekimenaren eskutik, ALEAK bost latatz osatutako **zainzuri sorta** bat zozketatuko du. Eman izena **urriaren 12** baino lehen. Hilaren 16an jakinaraziko dugu irabazlea.

artepan



LEGUTIO

Larraitx Lopez de Briñas Biteri

"Zorionak Pitxirixkina! Dagoeneko urtebete! Patxito erraldoia lagun eta etxeko danen partetik, eta bereziki, Intzan partetik".



GASTEIZ

Gerezi Unanue

"Zorionak Bittori! Familiyan ta launen partez urte askotako! Emakume galanta haiz ta, ez ahaztu! Earki pasa! Ahal dan moduz baina askoz askoz hobe noski! Ganoraz zelebrau!".



MAEZTU-GASTEIZ

Jaione Olabe Laserna

"Zorionak, Jaio! Gauza asko aldatu dira hogeita hamar urte hauetan, baina badago aldaezin mantendu den bat: bizitasunez betetako zure irribarrea. Mendialdea Gasteizera ez badator, Gasteiz joango da Mendialdeara zuri belarritik tira egitera! Besarkada handi bat metropoliko kuadrillaren partez".



GASTEIZ

Karolina Fdz. Arberas

"Zorionak Karolo! Laster ganoraz ospatuko dugu, bai horixe, Arabako basaranez emango diguten zukurik onenarekin! Gure animo danak azken txanpa hontan. Ospakizunak pilatzen doaz! Besarkada handi bat kuadrila guztian partez".

Aizu, lagun!

Gasteizen euskararen erabilera
sustatzen lagundu nahi?
GEU euskara elkartearekin
kolaboratu nahi?



Kultura taldea
mendi taldea
Irakurle kluba
mintzalaguna
Hirinet.net ataria
Hirinet.fm irratsaioa
ALEA astekaria
familia aisialdia

Animatu, parte hartu, idatzi geuelkarte@geuelkarte.com
helbidera edo deitu 945222153 telefonora

HITZ GEZIDUNA



Kalekoa	▼	Benetan	▼	Erandioko	▼
Indiako ibaia		Anaia		Afrikako estatua	
▶		▼		▼	
Irakurri	▶				
(Aditzoina) Galdu					
Azpikoak	▼	*	▶	▼	
So egon		Segada, lakirioa			
▶		▼			Afrikako estatua
Arrantza gunea	▶			Ardi, hitz elkarketan	▶
Bizkaieraz, duk				Euskadi, labur-labur	
▶			Metal zuri sistiratsu	▶	
			Artsenikoa-ren ikurra	▼	
Arabako kuadrilla	▶			Zilarraren ikurra	▶
Poliedro bat				500	
▶				▼	

* Barrundiako gaztelua.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

O	R	E	D	E	S	O	I	K	A
A	G	Z	A	R	A	V	A	I	A
O	I	N	E	R	E	A	K	O	D
T	A	R	T	K	A	L	V	A	R
U	T	A	T	Z	E	L	A	T	Z
A	R	A	G	E	B	A	R	A	P
U	T	E	L	E	A	N	G	E	S
A	E	K	A						

SUDOKUA

6	9	5	1	3	4	5	9	2	8	7	6	1	3	4	5	9
4	9	3	8	5	7	1	2	6	1	6	5	4	9	2	8	3
1	6	5	4	9	2	8	3	7	5	1	4	7	3	9	6	8
6	7	2	2	5	4	8	3	9	1	1	6	3	8	9	6	8
8	3	9	1	2	6	5	7	4	8	3	9	1	2	6	5	7
7	2	8	3	6	4	9	1	5	4	1	2	8	5	7	6	3
3	5	6	9	7	1	2	4	8	4	8	9	7	1	2	4	8

GOITIBEHERA

A	I	Z	V	T	R	V
A	T	A	R	I	Z	
V	R	V	Z	I		
R	V	Z	I			
I	V	Z				
V	Z	I	N			
N	I	V	Z	I		
I	Z	V	N	I	P	
Z	A	P	I	N	A	I

SUDOKUA

				7	1			8
9			2					
7	2				4		1	
	3		1		6	5	7	
			5		8			
	1	4	7		9		8	
	6		4				3	7
				7				6
2			6	1				

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1

2

3

4

5

6

7

8

9

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Arraia-Maetzuko kontzejua. 2. Pinuaren hazi. 3. Intsektu odol xurgatzaile. 4. Frantziako hegoaldeko hiria. 5. Gipuzkoan, zain. 6. Argizagi, astro. 7. Maindirea, mihisea. 8. Garai bateko musika tresna. 9. Guraize handia.



LUIS JAUREGIALITZA

'Liburu egoitzak' Unai Elorriagarekin

Gasteiz. Asteazkenean, 19:00etan, Aldabe gizarte etxean.

URRIAK

9

URRIAK

15

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Gerrilla Fest. Hobetu Beharra, Astalapo, Ekin, Hitzez Huts, Kokotean Kosk eta beste hainbat talde

Gasteiz. Ostirala 9, 17:30ean, Errekaleorreko gaztetxean.

Akerbeltz

Agurain. Ostirala 9, 23:30ean, txosnagunean.

Bitartean

Gasteiz. Larunbata 10, 20:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Piarres, Egurra ta Kitto eta Leihotikan

Agurain. Larunbata 10, 23:30ean, txosnagunean.

Joselu Anaiak

Agurain. Igandea 11,

'Ilunabarrean dantzan', Europako eta Euskal Herriko dantzak.

Gasteiz. Ostirala 9, 19:30etik 21:00etara, Oihaneder Euskararen Etxean.



ALEA

20:00etan eta 23:30ean, Donibane plazan.

BERTSOLARITZA

Bertso bazkaria

Aramaio. Larunbata 10, 15:00etan, Kasatxo elkartearen. Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.

HAURRAK

Koloretako loreak prestatzeko eskulan tailerra

Laudio. Larunbata 10, 17:30ean, Lamuza parkeko ludotekan.

'Tximeletrak airera' Xabier Olasoren errezitaldia

Gasteiz. Osteguna 15, 18:00etan, Arriaga gizarte etxean. 6-12 urte bitartean.

IKUS ENTZUN

'Skizopozik' errezitaldia

Gasteiz. Asteartea 13, 20:30ean, Parral tabernan.

Gazte Zinemaldia

Ozeta. Zinemagintzari buruzko ikastaro praktikoa. Bi asteburuko saioak. 16 urtetik gorakoei zuzenduta. Argibideak



'Krapp's last tape' antzerkia

Gasteiz Ostirala 9, 20:30ean, Principal antzokian. Peter Steinek zuzendariaren

eskutik, Samuel Becketten *Krapps Last tape* lanak emango dio hasiera Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiari. Klaus

Maria Brandauer aktorea izango da taula gainean; alemanez izango da, gaztelaniazko goi tituluaz lagunduta.

945- 06 32 45 telefonoan. Izena emateko azken eguna: urriak 9.

BESTELAKOAK

'Bagara 1' urteurren ekitaldia

Gasteiz. Osteguna 15, 20:00etan, Oihanederren. Oihaneder Euskararen Etxeak urtebete egin duela ospatzeko ekitaldia.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Nach

Gasteiz. Ostirala 9, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

Mugako jaialdia. Objekt, Demdike Stare, Answer Code Request, Boris Divider, Svreca eta beste hainbat talde izango dira

Gasteiz. Ostirala 9, 21:00etatik

aurrera, Artium aretoan.

Green River eta Arde Siberia

Gasteiz. Larunbata 10, 22:00etan, Hell Doradon.

Bardulia

Villanañe. Larunbata 10, 23:00etan, La Gruta tabernan.

Tarna

Gasteiz. Igandea 11, 19:30an, Hor Dago tabernan.

Enol abesbatza

Fontecha. Astelehena 12, 13:00etan, San Nicolas elizan.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Gasteiz. Asteartea 13, 20:00etan, Principal antzokian.

Steve Wynn

Gasteiz. Asteazkena 14, 19:00etan, EHUKo pabilioian.

ANTZERKIA

'Cándido' Ortzai

taldearekin

Gasteiz. Larunbata 10, 20:30ean, Principal antzokian.

'La Cenicienta que no quería comer perdices' Sustraibarri taldearekin

Gasteiz. Asteartea 13, 19:00etan, Iparralde gizarte etxean.

'Edipo Rey' Teatro de la Abadiarekin

Gasteiz. Ostegunear, 20:30ean, Principal antzokian.

IKUS ENTZUN

'El precio de la libertad' pelikula

Gasteiz. Asteazkena 14, 19:00etan, Vital Kutxa Fundazioaren aretoan. Historia eta memoriari buruzko jardunaldien barruan.

'L' Absence' pelikula

Gasteiz. Osteguna 15, 19:00etan, Artiumen. Mama Keïta zuzendariak aurkeztuko du.

HITZALDIA

'Emakumeak eta elikadura subiranotasuna: bizitza erdigunean ipiniz', Helen Groomerekin

Gasteiz. Asteazkena 14, 19:00etan, Oihanederren.

ERAKUSKETA

'Biodiskografiak', Alaitz Alberdiren ilustrazioak

Gasteiz. Azaroaren 21era arte izango da, Zuloa liburu dendan. Iban Zaldua idazlearen *Biodiskografiak* ipuin liburuaren gaztelaniazko edizio ilustratzeko lana egin du Alaitz Alberdik.

BESTELAKOAK

Babarrun pikartaren azoka

Pobes. Igandea 11, egun guztian zehar. Bertako produktuen azoka, babarrunak dastatzeko saioa, eskulangileen azoka, musika eta beste hainbat jarduera izango dira.

SOLAS ALEAN

Kike
Amonarriz-ekin

DATA: urriaren 16an, ostirala

ORDUA: 19'00etan

TOKIA: Oihaneder Euskararen etxea

*elkarrizketa
irekia, bota
zure galdara*

Gidariak:



hirinet

Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTRORRATZ KANDE ANIZTORIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala